

## HEZIKETA FISIKOKO Ebaluazio irizpideak 3. zikloa

### **1.-Norberaren ezagutza eta kontrola**

- ✓ Jarduera fisikoaren ondorioz sortzen diren gorputz egokitzapenak ezagutzea.
- ✓ Egoera ezberdinetan lateralitatea finkatzea.
- ✓ Oreka egoera konplexuak kontrolatzea.
- ✓ Koordinazioa eta gorputz mugimendu aukeren kontrola garatzea
- ✓ Egoeraren arabera espazio-denboraren ezaugarriak kontrolatzea.

### **2-Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.**

- ✓ Ikaskideekin elkarrekintzan, taldekako konposizioak (koreografiak, dramatizazioak,..) egitea; gorputzaren adierazpeneko baliabideak erabiliaz eta musika, hitza edo irudizko estimuluak oinarri hartuz

### **3-Jarduera fisikoa eta osasuna.**

- ✓ Jarduera fisikoa sarritan eta era egokian egiteak, higiene, elikadura eta gorputz jarrera egokiek osasunaren hobekuntzarekin duten zerikusiaz jabetzea.
- ✓ Oinarrizko trebetasunak ondo menperatzea.
- ✓ Oinarrizko trebetasunak jolas, joko eta jardueretan eraginkortasunez erabiltzea
- ✓ Norbera dituen gaitasun fisikoen maila ezagutzea eta baloratzea.
- ✓ Gero eta oreka egoera konplexuagoetara gorputza egokitzea.
- ✓ Jardueretako egoera ezberdinetara, bere mugimendua egoki aplikatzea.
- ✓ Jarduerari egokitutako estrategiak garatzea.
- ✓ Edozein espazio eta jardueretan modu autonomoan mugitzea.
- ✓ Kirol arazo eta ariketak ebazteko estrategia ezberdinak erabiltzea.
- ✓ Jardueraren arabera egin beharreko esfortzua egokitu eta erregulatzea.
- ✓ Emaitzen ginetik, esfortzua jarduera fisikoaren oinarrizko balore moduan onartzea.

#### **4-Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza.**

- ✓ Jolas, jokoetan, kirol eta jardueretan parte hartzea eta gozatzea.
- ✓ Jolas , jokoan, kirol eta jardueren barne logika ulertzea, eta arauak betetzea eta betearaztea
- ✓ Norberaren ahalegina eta taldeko harremanak, emaitzaren gaineratik baloratzea
- ✓ Jarduera fisikoa eta kirola egitean, sortzen diren gatazka egoerei, iritzi koherente eta kritikoa ematea.
- ✓ Gatazkek gairiditzeko elkarrizketa beste edozein irtenbideren gaineratik erabiltzea.
- ✓ Saioarean martxa egokia bultzatuz arauak betearaztea.
- ✓ Lagun guztiekin elkarrekintza positiboan jokatzeko, bakoitzaren izaera pertsonal eta gizarte izaera kontutan hartu gabe.
- ✓ Jolasa gozamenerako, harremanak egiteko eta aisialdi-denbora pasatzeko baliabide gisa hartzea
- ✓ Euskal Herriko tradiziozko jarduera fisikoak ezagutzea eta gauzatzea.
- ✓ Norbere kultur tradizioan sustraituta dauden jolasak, dantza keta kirolak biltzea.
- ✓ Euskal tradizio ludikoaren izaera balioestea eta interpretatzea.
- ✓ Beste kultura batzuetako tradizio ludiko-fisikoa ezagutzea eta balioestea.